

PRENTSA OHARRA

EikenBANK-en III. Edizioko irabazleek kontratua sinatu dute Baleukorekin, gastronomia eta ikasleen bizimodua uztartzen dituen "ErrezEta Ikasiz" saioa ekoizteko

- ETBk emango duen proiektu honek Jarkatza Mediaren babesa ere izango du.
- Ideia sortu duten hiru gazteek 4.000 euroko beka izango dute 4 hilabeteetan, Baleukon proiektua modu profesionalean garatu ahal izateko.

Bilbo, uztailak 26. Sukaldaritza aholkuak eta ikasleen bizimodua uztartzen dituen "ErrezEta Ikasiz" telebista ideia arduradunek hurrengo 4 hilabeteetan proiektua garatu ahal izateko kontratua sinatu zuten aurreko ostiralean, Baleukok Durangon duen egoitzan. Erika Elizari, Beñat Gereka eta Alaitz Anabitarte dira, hain zuzen, EikenBANK-en III. edizioa irabazi duten UPV/EHUko hiru ikasle gazteak; eta Eduardo Barinaga Baleukoko bazkide zuzendariaren eskutik jaso zuten 4.000 euroko saria. Berandu baino lehen hasiko dira euren ideia garatzen, Baleuko ekoizpen-etxean egingo dituzten 4 hilabeteko praktika ordainduei esker.

Sinadura hori izan da, beraz, EikenBANK-era aurkeztutako 67 proposamenetan garaile atera den "ErrezEta Ikasiz / EsTuDía, tu receta" proiektua ekoizteko lehenengo pausoa. Proiektuak, Baleukoren laguntzaz gainera, Jarkatza Mediaren babesa ere izango du ekoizpen lanean. Epaimahaiak, bestalde, ideiaaren originaltasuna eta ideiak izan dezakeen bideragarritasuna hartu ditu aintzat bere epaia ematean. Orain, berriz, ekoizti egin beharko dute, gero ETBn eman ahal izateko.

Lehenengo sari honetaz gainera, EikenBANK-eko epaimahaiak BBK Beka ere eman du aurreneko aldiz: Ibai Gomezek jaso du. Horri esker, EikenBANK-en lankidea den K2000 ekoizpen-etxean praktikak egiteko aukera izango du Gomezek.

Talentuaren bila

EikenBANK programaren helburu lehena sormenezko talentu ez-profesionala topatu, eta enprekin harremanetan jartzea da. Hala, lankidetzaz horri esker, Euskadiko Ikus-entzunezkoen munduan eta zehazki proiektuaren sustatzailea den Euskadiko Ikus-entzunezkoen Klusterraren bazkide diren enpresetan produktu lehiakorragoak sortu ahal izango dira.

Klusterreko hamabi enpresak hartu dute parte EikenBANKen; honako hauek, hain zuzen: **3Koma, Baleuko, Barton Films, Canal Bizkaia, EiTB, Idem, Irusoin, Jarkatza, K 2000, Orio Produkzioak, Pausoka eta Signo digitalek**. Gainera, instituzioen babes handia dauka programak; izan ere, Eusko Jaurlaritzaren laguntza (Kultura Sailaren bitartez), Bilboko Udalaren laguntza eta BBKren laguntza (Gazte Lanbidean Fundazioaren bitartez) eskuratu du.